



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 27a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indargabetzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).

—Jabeldura, Nafarroan emakumezko kirola sustatzeko politikari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arautu dezan Foru Komunitateko transplante-etarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berrikus ditzan eta haren aholkularitza-batzordearen kideak alda ditzan. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, lan-mahai bat abiaraztea proposatzen da, untxi-izurrirako soluzio-neurriak ezarztearren. Santos Cerdán León jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian eskaintzen. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emigrantearen eta Errefuxiatuaren Nazioarteko Egunarekin, migrante izan eta ahulezia-egoeran dauden adingabeen egoera salatzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zzeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten baitu Guatemalako eta Mexikoko ekologisten egoera, eta bere elkartasuna adierazten baitie oraintsu eraildako ingurumen-ekin-tzaile Laura Vázquez Pinedaren eta Isidro Baldenegroren familiei. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro-poligonoa kentzea exigitzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu erakutsi izana, Sadarren, lagun-talde batek 2016ko sanferminetan gazte bat ustez bortxatzeagatik ikertutako pertsona baten aldeko pankarta bat. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu egiten baitu elektrizitatearen prezioek 2017ko urtarrilaren 18an izandako igoarazpena. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Gdeim Izik-eko saharar ekintzaileei, eta horiek aske uzteko eskatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Iruña-Noingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indargabetzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2017ko urtarrilaren 18an hartutako erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indargabetzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indargabetzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa, indargabetzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ahalegin handia egin du industriarako lurzorua sustatzeko eskualdeko industrialdeak eraikiz. Jardueta horien osagarria izan da udal industrialdeen garatzeko laguntza. Helburu horrekin eman zen otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

Gaur egun, industrialde urbanizatuen eskaintza nahikoa da eskariari erantzuteko, nahiz eta batzuetan bat ez etorri azken ekitaldietan atzemandako beharrak benetan dagoen lurzoru eskaintzarekin. Behar horiek aldakorrak dira eta mota askotakoak: lurzorua prestatzea lehendik kokatuta dauden jarduerak handitzeko; lanak egitea zerbitzu berriak emateko egun dauden industrialdeei; enpresen eskura jartzea lurzorua ez, bai zik eta lokal txikiak, enpresa ekintzaileak hasierako fasean bertan ezartzeko, etab.

Behar berri horien ondorioz, otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea ez da jada hain tresna eraginkorra enpresei kokalekuak emateko behar berriei erantzuteko.

Toki mailako industrialdeak sustatzeko laguntzak arautzeko foru lege bat egiteko arrazoia izan zen, garai hartan, diru-laguntzei buruzko legerik ez zegoela, eta 2/1997 Foru Legean ezartzen ziren laguntzetako bat Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kuotaren hobari bat zela. Gaur egun, ordea, hobari hori ez da neurri eraginkorra, eta, gainera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezartzen du zein den Foru Komunita-

teko Administrazioak ematen dituen laguntzek bete beharreko esparrua; horrenbestez, ez da beharrezkoa lege mailako arau baten bidez arautzea toki mailako industrialdeetarako laguntzak.

Aitzitik, laguntzak lege mailakoa ez den xedapen baten bidez antolatzea egokiagoa da, unean unean aukera emanen baitu malgutasunez ezartzeko atzemandako beharrei erantzuteko behar diren laguntza neurriak. Horregatik guztiagatik, bidezkoa da indargabetzea otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzak arautu zituena.

Artikulu bakarra. Indargabetzea otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa.

Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea indargabetzen da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren alorrean darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

“Institución Futuro” think tankaren “Situación de la innovación en Navarra. Comparación regional con Europa” izeneko txostenaren arabera, zeina Europar Batasunaren “Regional Innovation Scoreboard” dokumentuko datuetan oinarritzen baita, Nafarroa berrikuntza-ahalmena galtzen ari da lehengo mailen aldean, eta lehiakide dituen Europako punta-puntako erregioetatik oso urrun dago zenbait alderditan. Espainian, Nafarroak laugarren tokoa betetzen du berrikuntzari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, Garapen Ekonomikorako Departamentuak berrikuntzaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko honako jabeldura hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Jabeldura, Nafarroan emakumezko kirola sustatzeko politikari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroan emakumezko kirola sustatzeko politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Cristina Altuna Ochotorena foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako jabeldura hau aurkezten du:

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak funtsezko xede gisa ezartzen du "kirola Nafarroako herritar oren eskubidetzat hartzea, alegia, herritar guztiek dutela eskubidea kirola ezagutu eta horretan aritzeko, libre eta nor bere borondatez, berdintasunean oinarrituta eta sexua, adina edo bestelako ingurubarrak bazterkeriarako arrazoia izan gabe."

Ohartzen gara xede hori lortzea erronka etengabe bat dela nafar politiketan, eta hori dela-eta nondik abiatzen garen aztertu beharra dago. Azpimarragarria da zer-nolako aldea dagoen gizonezkoen eta emakumezkoen lizentzia-kopuruan Nafarroan.

2015ean, guztira erregistratutako 75.343 lizentzien % 73,95 gizonezkoen mailei zegozkien (55.720 lizentzia), eta % 26,04, berriz, emakumezkoen mailei (19.623 lizentzia).

Espainiako ikasleen kirol-ohiturei buruzko azken inkestaren arabera (2011), ikasleen % 63k egiten du kirola modu antolatuan. Sexuen arteko aldea 20 puntukoa da: mutilen % 73k egiten du jarduera fisiko-kirolezko bat modu antolatuan; nesken kasuan, aldiz, % 73k. Alde hori helduen artean ere ematen da.

Txostenak dio jarduera fisiko-kirolezkoa murriztu egiten dela nerabegarora heltzean: 6-7 urtekoen artean % 64k egiten dute halako jardueraren bat, eta ehuneko hori % 50era jaisten da 16-18 urtekoen artean. Nabarmena da, halere, nesken kasuan mutilenean baino handiagoa dela kirola egiteari uzten diotenen kopurua. Eskola-populazioan eta helduenean mantendu egiten da sexuen artean ematen den alde hori; beraz, azpimarratzen da eskola-adinean kirola egiteko ohitura hartu beharra dagoela, eta oinarritzko kirolek hasita bermatu behar dela aukera-berdintasuna.

Hori dela-eta, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aukera-berdintasunean aurrerabidea egiteko xedez eta neskek jarduera fisiko-kirolezkoa lehenago ez uztea lortzeko xedez, Nafarroan emakumezkoen kirola bultzatzeko politikari buruzko jabeldura aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arautu dezan Foru Komunitateko transplanteetarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arautu dezan Foru Komunitateko transplanteetarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gure foru erkidegoa aitzindaria da organo-transplanteen nahiz odolaren, hezur-muinaren eta abarren ematearen arloan. Kualifikazio handiko profesionalak dauzkagu; halere, transplanteen kudeaketari dagokionez gardentasun handiagoren falta igartzen dugu administrazio-mailan, are beharrezkoagoa dena transplante horietako asko osasungintza pribatuarekiko itunen bidez egiten delako.

Pertsona ezagun bati egindako gibel-transplanteari buruzko hainbat zurrumurru argitaratu direlarik, arrazoizko zalantzak gelditu dira agerian prozesu garrantzitsu horiei buruz. Zalantza horiek argitu beharra dago, eta neurriak hartu behar dira transplanteen kudeaketaren gaineko gardentasuna eta herritar-ezagutza handiagoak izan daitezzen, herritarrek gure foru erkidegoko transplante-sistemarekiko konfiantza izaten jarraitzea xede.

Araudi-mailan, eta honi dagokionez, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzen eta arautzen duen

1/2013 Foru Legeak oker dio bere zioen azalpenen “organo-emateen eta transplanteen alorreko lurralde koordinazioa eta giza organoak lortzeko eta klinikoki erabiltzeko jarduerak abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretuan arautzen” direla eta “prozesu horiek ospitale eremuetan baizik” ez direla egiten. Halere, lege hori onetsi zen egunean jada indarrean zegoen 1723/2012 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez transposizioa egin baitzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/45/UE Zuzentarauarena, Transplanterako giza organoen kalitate eta segurtasun arauari buruzkoarena. Beharrezkoa da, hortaz, foru araudia egokitzea errege dekretu horren bidez transposizioa egiten zaion Europako legedi aurreratuagora.

Hartara, egungo araudiarekin erantzun gabe gelditzen diren galdera ugari erantzun bat eman ahal izanen zaie:

Nork du emaileak lortzeko ardura? Zein da protokoloa? Zein da organoak eta ehunak ateratzeko prozedura? Nork izendatzen ditu organoak eta ehunak ateratzen dituzten lantaldeak? Non egiten dira ateratzeak eta zer pertsona daude deituta ateratze bakoitzera? Nola egiten da organoen eta ehunen garraioa eta biltegiatzea?

Zein da Nafarroako Foru Komunitateko historiataragarritasuneko erreferentzia-laboratorioa? Ba al du EFI-Europako akreditaziorik?

Gure erkidegoan zer zentrok daukate baimena organoak ateratzeko eta landatzeko, ehunak ateratzeko eta landatzeko eta ehunak ateratzeko eta biltegiatzeko? Zer baldintza bete behar dira baimen horiek lortzeko? Zentroen ikuskapenik egiten al da? Zer maiztasunez?

Nork erabakitzen du organoen norakoa? Nork kontrolatzen du transplanteen itzarote-zerrenda? Nola bermatzen da transplante-irizpide teknikoak beste batzuen gainetik errespetatzen direla, halatan osasun-turismoa, organo-trafikoa... ekiditeko?

Nor da organo-emaileen eta -hartzaileen erregistroaren arduraduna?

Zer jarduera-txosten, eta zenbateko maiztasunez, argitaratzen dira?

Ba al dago “Nafarroako Unibertsitatea Klinika” entitate pribatuarekiko hitzarmenaren betetzea-

jarraipena, buruaskitasuna eta jarduera kontrolatuko duen batzorderik? Nork osatzen ditu batzorde horiek? Zenbateko maiztasunez biltzen dira? Aktarik egiten al dute?

Trazabilitatea bermatuta al dago?

Izaera ekonomikoko auziak ere hor daude; izan ere, azkenaldian nabarmen handitu da Nafarroako Unibertsitatea Klinikako transplanteetara bideratutako kontu-saila, diru hori beste kontu-sail garrantzitsuko batzuetatik kenduta. Nork erabakitzen du patologia-aren lehentasuna? Jarduera justiziazkoa –arloan funtsezko balio etikoa– ari al da izaten?

Zenbat nafar daude itxarote-zerrendan, organoen arabera? Ekonomikoagoa eta seguruagoa izanen al litzateke transplante zehatz horretan kasuistika handiagoa daukan beste autonomia erkidego batean egitea eta O-NOZeko profesionalek horren jarraipena egitea?

Organo-, ehun- eta odol-ematea emaleen borondatezko ekintza altruista bat da, eta hori areagoko arrazoia da ekintza goraiagarri horiek sari bezala hein handiko gardentasuna izan dezaten, gizartean konfiantza sortzen jarraituko duena eta

gure erkidegoan harro egoteko aukera ematen digun elkartasun horretan aurrerapauso gehiago ematen utziko diguna.

Hori guztia dela-eta, behean sinatzen duen foru parlamentariak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arautu dezan Foru Komunitateko transplanteetarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa, 1723/2012 Errege Dekretua eta gaiari buruzko Europako araudia betez, horrela bermatze aldera gaixo askorentzat hain onuragarria den tratamendu horren segurtasuna, kalitatea, eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna; hartara, egin beharreko aldaketak egingen dira 1/2013 Foru Legean, indargabetu edo aldatu egingen da foru lege hori garatzen duen erregelamendu-araudia, eta eman beharreko jarraibideak eta gainerako egintza administratibok emanen dira.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berrikus ditzan eta haren aholkularitza-batzordearen kideak alda ditzan.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Karlismoaren Museoaren edukiak berrikus ditzan eta haren aholkularitza-batzordearen kideak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Karlismoaren Museoaren edukiak berrikus ditzan eta haren aholkularitza-batzordearen kideak alda ditzan.

Zeharkako memoriaren kontzeptuak berarekin dakar Nafarroako Gobernuaren erakunde-maila eta -ekintza guztiek koherentzia eta koordinazio bat izatea, gai hori arautzen duten lege desberdinen espiritu eta filosofiarekiko errespetuan oinarritua.

“Zeharkakotasun” kontzeptua interesgarria da; izan ere, legegintza-borondate bati, memoria historikoa sustatzekoari, zentzua ematen dio, egia, justizia eta ordainean oinarrituriko politika publiko-

ak ez daitezen isolaturik egon beste ekintza batzuetatik.

Halaber, adostasun sozial eta politiko zabala dago memoriak ikasgune gisa duen garrantziaren inguruan; izan ere, bultzada etiko indartsua duen mugimendua da. Hala, Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak azpimarratu zuen “memoriak izan behar duen eginkizuna gizarte bidezkoagoa, etikoagoa, iraganari era kritikoan begiratuko diona eraikitzerakoan”, eta gu ere bat gatoz erabat baieztapen horrekin.

Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoak, sakoneko aldaketa ekarri zuen memoria demokratikoaren tratamenduari dagokionez. Testu horrek, neurri batzuk hartzera behartzeaz gain, bultzatzen gaitu neurri horiek zioen azalpenean eta artikuluetan zehazten diren printzipio eta oinarriak kontuan hartuta hartzera.

Karlismoaren Museoak, 1999an Foru Agindu bidez sortua eta 2010ean inauguratuta, ez ditu fidelki islatzen estatu kolpe frankistaren garaian gure lurraldean gertatutakoak. Badakigu karlismoa ia berrehun urte dituen mugimendua dela, haren konplexutasuna eta bultzadak ezagutzen ditugu; hori dela eta, karlismoaren hiru urteko errepresioa eta ondorengo gerraostea kanpo uztea, foru lege baten aurka joateaz gain, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia modu egokian hartzen ari den neurri askoren aurka joatea ere bada.

Karlismoa ezinbestekoa izan zen frankismoak lortu zuen garaipenean, eta, batez ere, zabaldu zen errepresio ankerraren protagonista izan zen. Ankerkeria karlista guztia hemen kontatzea ez dator harira, kontu ezagun eta luzea baita; baina agerikoa da karlismoak milaka fusilatze, bortxatze, lapurreta eta ile-mozketa babestu, erraztu eta gauzatu zituela. Hori ebidentzia historikoa da; izan ere, biktimek berek kontatzeaz gain, artxibo publikoetan bertan ere jasota dago. Hala, gerrako batzar karlisten zentzua zen, hain zuzen, elementu errepublikarren aurkako errepresio doi eta eragin-korra zabaltzea.

Hortaz, karlismoaren historiako garai funtsezko hura Karlismoaren Museotik at uztea eta ahaztea, gaur egun oraindik gure artean bizi diren biktimekiko iraina izateaz gain, karlismoaren irudi idealizatu eta distortsionatu bat ematea ere bada. Karlismoa aztertzea eta ulertaraztea bada gure nahia, merezi du bere osotasunean tratatzea.

Ezin da karlismoa biktima huts gisa edota gizarte-disidentziako herri-mugimendu gisa aurkeztu, 1936an ehunka gizon eta emakume nafarren hilketaren erantzule nagusia izan zenean. Gaizki uztartzen dira, ikuspuntu guztietatik, eskua eman diezaiegula biktima errepublikarrei eta, aldi berean, hain eskuzabalak izatea biktima-eragileekin.

Eta horiek dira, hain zuzen, zeharkako memoria balioan jarri behar deneko jarrerak. Ez amaiera erretoriko gisa, jarduketa zintzo eta konprometitu gisa baino. Lehen aipaturiko legearen 1.2. artikulua guzuz bestela egitera gonbidatzen gaitu; izan ere, hauxe zehazten du: “Halaber, foru lege honek erraztasunak eman nahi ditu Nafarroan garai horretan gertatutakoak ezagut daitezen”.

Hori dela eta, premiazkoa eta derrigorrezkoa da Karlismoaren Museoaren edukia egokitzea lurralde honetan gerra zibilean eta frankismoaren garaian izandako gertakarietara.

Halaber, hausnarketa sakona egin beharko litzateke museoaren batzorde aholku-emailea osatzen duten erakunde eta pertsonen aukeraketari buruz. Kontua ez da zentsoreka aritzea edota gorrototik edo sektarismo ideologikotik jardutea, baizik eta kontsultarako tresna bat Nafarroako Gobernuak sustaturiko erakunde orotan zaindu behar diren printzipio etiko eta demokratikoetara egokitzea. Eta batzorde horretan egotea publikoki estatu kolpearen eta “gurutzadaren” aldekoak diren pertsona, alderdi eta elkarteak, biktima errepublikarren memoria etengabe gutxiesten dutenak, ez da ustezko “aniztasun” bat ontzat ematea baino, eta horrek ez du tokirik memoriari buruzko politika serio batez ari bagara. Aniztasun horrekin lotuta, gainera, arraroa da biktimen ahotsik ez entzutea.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak museo horrekiko orain arte izan duen jarrera berrikustek erakutsi eginen du gure historia hurbileko biktimak nolako sentsibilitatez tratatzen ditugun; izan ere, Nafarroan funtzionarioak, irakasleak, zinegotziak eta bestelako pertsona arruntak erail bazituzten, izan zen, besteak beste, karlismoak bere eginkizuna bete zuelako, tamalez.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea sei hilabete epean Karlismoaren Museoaren edukiak (erakusketa iraunkorra) berrikusteko plan bat aurkez dezan, koherentea izan dena 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen printzipioekin. Hala-

ber, Gobernu premiatzea epe berean aurkez ditzan aldi baterako erakusketa baterako gidoi eta plan bat. Erakusketa horretan karlismoa 1936ko altxamendu militarrean kokatuko da, erreketek gerra zibilean izan zuten parte-hartzean, eta karlismoak eta erreketek altxamendu militarren osteko errepresioan izan zuten protagonismoan. Aldi baterako erakusketa hori ibiltaria izanen da eta Nafarroan zehar jarriko da.

2. Nafarroako Gobernu premiatzea alda dezan Karlismoaren Museoko Batzorde Aholku-emailea izendatzen duen 81/2016 Foru Agindua, azaroaren 11koa, eta haren eginkizunei gehitu diezaien karlismoari buruzko ikerketa eta zabalkun-

dea sustatzekoa, betiere jarraikiz 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen zioen azalpenean eta artikulua desberdinetan jasotzen den ildoari. Halaber, prematzen da batzorde aholku-emaile horrek bere kideen artean izan ditzan Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoan jada parte hartzen duten memoriaren alorreko bi elkarteak.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 18an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, lan-mahai bat abiaraztea proposatzen da, untxi-izurriarako soluzio-neurriak ezartzearren.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez lan-mahai bat abiaraztea proposatzen baita, untxi-izurriarako soluzio-neurriak ezartzearren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldekoko eledunaren ondoko Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Erriberako zenbait herritan dagoen untxi-izurriaren ondorioz nekazaritzan izaten ari diren kalteak beharrezkoa egiten dute administrazioek neurriak har ditzaten, kalte horiek minimizatzeke eta nekazarien eta ehiztarien interesak uztartzeko.

Erabaki proposamena:

Lan-mahai bat sortzea proposatzen da, zeinetan ordezkatura egonen baitira ukitutako administrazioak –udalak eta eta Nafarroako Gobernu– eta ehiztari nahiz nekazari elkarteak, untxi-izurriarako soluzio-neurriak ezartzeko xedez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian eskaintzen.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian eskaintzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako ikastetxe publikoak eta itunpekoak Hizkuntzak Ikasteko Programari atxikitzeari buruz Hezkuntza Departamentuak emandako foru aginduak ezartzen duenez, ikastetxeetako zuzendariak dira eskatuko dutenak programa hori eskaini ahal izatea edo ez, halako moduan non gurasoei ez baitzaie askatasunik ematen beren seme-alabentzat beren erreferentzia-ikastetxeetan nahi duten hezkuntza-motari buruz erabakitzeke.

Gaur egun, Nafarroako 300 ikastetxeetatik heren batek soilik eskaintzen du Hizkuntzak Ikasteko Programa, eta horrek mugatu egiten ditu

nafar ikasleen aukerak. Ingelesa, bereziki, gero eta beharrezkoagoa da eta gero eta gehiago eskatzen da, Hezkuntza Departamentuak programa horren jarraitutasuna arriskuan jarri duenean deitu diren manifestazio publiko eta elkarretarazteetan agerian jarri denez.

Halatan, zenbait guraso prest leudeke beren seme-alabak beste ikastetxe edo herri batzuetan eskolatzeko, ingelesez ikasi ahal izan dezaten, ez balitz izanen gurasoentzat askotan garestia izan ohi delako beren seme-alaben garraioa eta jangela ordaindu behar izatea.

Egoera hori bera gertatu da eremu ez-euskaldunean; izan ere, zenbait gurasok erabaki dute beren seme-alabek D ereduan ikas dezaten, hizkuntza-eremu horretan funts publikoekin itundutako ikastoletakoren batean. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak jadanik iaz erabaki zuen ikasle horiei laguntzak ematea garraiorako eta jangelarako, halako moduan non beren herrietan ez dauden ikasketak egin ahal izanen baitituzte.

Gure ustez, konparaziozko bidegabekeria da laguntza horiek berberak ez ematea beren seme-alabak Hizkuntzak Ikasteko Programara eraman nahi dituzten gurasoei, lehen eta bigarren mailako ikasleak ezartzen dituelako gurasoek hautatutako hizkuntzaren arabera, nahiz eta gurasoek askatasuna izan behar duten beren seme-alabak hobeki iruditzen zaien aukeran eskolatzeko.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garraio- eta jangela-laguntzak ezar ditzan Hizkuntzak Ikasteko Programa daukaten ikastetxeetan ikasi nahi duten ikasleentzat, programa hori ez denean haien erreferentzia-ikastetxean edo udalerrian eskaintzen.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emigrantearen eta Errefuxiatuaren Nazioarteko Egunarekin, migrante izan eta ahulezia-egoeran dauden adingabeen egoera salatzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Emigrantearen eta Errefuxiatuaren Nazioarteko Egunarekin, migrante izan eta ahulezia-egoeran dauden adingabeen egoera salatzearekin.

2. Eskatzen du sare-gune bat sor dadin gizarte-ahuleziako egoeran dauden haurren eta nerabeen arloan, elkarrizketa irekiak eta jardunaldiak antolatuz bazterkeria-, ahulezia- eta marjinazio-

egoerak eragiten dituzten faktoreak aztertzeko, eta dei egiten du gizarte osoak sentsibilizazioa eta konpromiso aktiboa izan dezan arazo hau ikusgai egiteko.

3. Eskatzen du entitate publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa handitu eta hobetu dadin, eta bere babesa adierazten die Nafarroan bizi diren haur migranteekin eta errefuxiatuekin lan egiten duten erakundeei eta elkartei”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten baitu Guatemalako eta Mexikoko ekologisten egoera, eta bere elkartasuna adierazten baitie oraintsu eraildako ingurumen-ekin-tzaile Laura Vázquez Pinedaren eta Isidro Baldenegroren familiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Guatemalako eta Mexikoko ingurumen-ekin-tzaileen eta ekologisten egoera; izan ere, Global Witness erakundearen “Lur arriskutsuan” txostenak arrisku handiko herrialdeetat hartzen ditu Guatemala eta Mexiko.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die San Rafaelgo meatze-proiektuaren aurka egoteagatik urtarrilaren 16an erail zuten guatemalar ekintzaile ekologista Laura Vázquez Pinedaren familiari eta hurbilekoei, bai eta Mexikoko Sierra Madre Occidental-eko oihanen defentsa sendoa egiteagatik urtarrilaren 19an erail zuten

ingurumen-ekin-tzaile Isidro Baldenegroren familari eta hurbilekoei ere.

3. Nafarroako Parlamentuaren desioa da agintariak azken bururaino eraman dezaten hilketa horien arduradunen bilaketa eta babesa berma diezaieten eraildakoak kide zireneko erakundeei: San Rafael Las Flores-ko Comité en Defensa de la Vida eta Fuerza Ambiental.

4. Nafarroako Parlamentuak espero du Guatemalan eta Mexikon giza eskubideen urraketa larrien erantzuleen inpunitateak utz diezaiola ohi-koa izateari, Laura Vázquez Pinedak eta Isidro Baldenegrok salatzen zuten bezala”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Bardeako tiro-poligonoa kentzea exigitzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bardeako tiro-poligonoa kentzea exigitzen du, eta duen izaeraren arabera balia dadin: “biosferaren natur erreserba bat”.

2. Bardeako Batzarra eta Defentsa Ministerioa premiatzen ditu 2018an hitzarmena sala dadin eta ez dadin automatikoki berritu.

3. Adierazten du bakearen kultura bat sustatzeko premia dagoela, zeina guztiz kontrajartzen baitzaio tiro poligono bat mantentzeari. Izan ere, Armadak su errealeko maniobra militarrik egiten ditu bertan; gerrako esperimenduak, azken batean”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu erakutsi izana, Sadarren, lagun-talde batek 2016ko sanferminetan gazte bat ustez bortxatzeagatik ikertutako pertsona baten aldeko pankarta bat.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du gertakari hori, zeharo deitoragarri eta bipil arbuia tzekotzat jotzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa adierazten dizkio iragan uztailean bortxatua izan zen gazteari, bai eta haren familiari eta eraso matxisten biktima izan diren emakume guztiei ere.

3. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du gizartearen edozein esparrutan jarrera eta jokabide matxistak errepikatuko ote diren, baita kirol-eremuetan eta, bereziki, masa-ikuskizun izateagatik berdintasuna eta errespetua sustatzeko gune izan behar duten horietan. Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak adierazten du zero tolerantziako jarrera eta politika bat behar direla. Halatan, lan egiteko konpromisoa adierazten du masa-ikuskizunetarako esparruak askatasun eta berdintasun ingurune gisa senti daitezen, emakumearenganako jarrera matxistak eta indarkeriazkoak onartzen ez direnekoak.

4. Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari eskatzen dio partidaren ostean hasitako jarduketekin jarrai dezan, justiziarren aitzinera eramate aldera zalantzarik gabe “genero-indarkeriaren apologia” gisa kalifika daitekeen gertakari horren arduradunak.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Futbol Federazioari, Indarkeriaren aurkako Batzordeari eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordeari eskatzen die hartu beharreko neurriak har ditzaten, Sevillaren jarraitzaile batzuek atzo izandako jarrera bezalakorik ez dadin berriro gerta futbol-estadioetan, eta ikerketa bat abiaraz dadin exigitzen du, emakumeen aurkako indarkeria-egoera horiek desagerrarazten laguntzeko.

6. Adierazpen hau helaraziko zaie Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari, Espainiako Futbol Federazioari, Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordeari, Club Atlético Osasunari eta Sevilla Fútbol Club-ari”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu egiten baitu elektrizitatearen prezioek 2017ko urtarrilaren 18an izandako igoarazpena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du elektrizitatearen prezioek 2017ko urtarrilaren 18an izandako igoarazpena, herritarrek ordaindu beharreko fakturan % 33ko gorakada baitakar, eta 2013ko abenduaz geroztik prezioak berriro ere gehieneko bat jotzea.

2. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Espainiako Gobernuak ekimenik ez baliatzea elektrizitate-enpresen oligopolio-egoera bukatzea eta herritarrez gehiago abusa ez dezaten bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du igoera hori ez dela merkatu-legeen ondoriozkoa, eta ez daukala inolako zerikusirik eskaintzaren eta eskariaren legearekin. Elektrizitate-oligopolioen

produkzio-eraginkortasunik ezaren ondorio hutsa da, faktura hori herritarren gain uzten baitute.

4. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Estatuan ez dagoela neurri zehatz eta eragingarri-rik babesa emanen dienik prezioen igoera etengabeak eragindako pobrezia energetikoaren aitzinean ahulenak diren pertsoneri; izan ere, Europako fakturarik garestienetako bat daukagu, Europan haur-pobrezia dagokionez bigarren herrialdea izaten jarraitzen dugun bitartean.

5. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Gobernuaren eta elektrizitate-enpresen bihozgabetasuna, igoarazpen hori urteko egunik hotzenetako batean egin baita, herrialde osoan zazpi milioi pertsona baitaude energia-pobrezian, eta Nafarroan gutxienez ere 44.000 pertsona.”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Gdeim Izik-eko saharar ekintzaileei, eta horiek aske uzteko eskatzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Gdeim Izik-eko saharar ekintzaileei, eta horiek aske uzteko eskatzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak preso politiko saharar guztien askapena eskatzen du; hortaz, Marokoko agintariei exigitzen die aske utz ditzaten funtsezko eskubide eta askatasunak baliatzeagatik espetxeratuta dauden preso sahararrak, eta gatazka horretan giza eskubiderik urra ez dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Marokoko Erresumari

berriro exigi diezaion Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-uraketak bukatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du konfiantza duela Nazio Batuak egiten ari diren ahaleginean, beren goi zuzendaritzaren bidez saharar herriaren determinazio askerako eskubidea bermatuko duen konponbide baketsu bat lortzekoan, betiere Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren eta Biltzar Nagusiaren kasuko ebazpenei jarraituz eta Afrikar Batasunaren Erakundearen ebazpenekin bat.”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Zangozako bidezain-etxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaial-

de y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2016ko aurrekontuan "Lurra erosi eta sustatzea eta eraikitzea" izeneko kontu-sail bat zegoen, 400.000 eurokoa.

Kontu-sail horren parte bat Zangozako bidezain-etxeen auzia konpontzeko zen.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

Eskubide Sozialetako Departamentuak zer neurri hartu ditu etxebizitza horiek erosteko eta konpontzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer egoeratan dauden Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak, balizko uholdeek ahalik eta kalterik txikiena egitea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Unión del Pueblo Navarro-ren ekimenez erabaki bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena azterlan bat egin zezan, zuzenean nahiz Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik, Ebro ibaiaren eta haren adarren (Aragoi, Arga, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) egoera errealari

buruz. Azterlan horretan ibai horien zolen eta babes-lubeten egoeraren deskribapen bat jasoko zen.

Zioen azalpenean, erabakiak aipatzen zuen Nafarroako Parlamentuko kideek bisita egin zutela Tuterako udal-mugarteko hainbat eremutara, zeinetan bertatik bertara ikusi ahal izan zituzten Ebro ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguak eta lubeten egoeraren ondoriozko afekzioak, bereziki nabarmenak direnak 2014ko azaroan eta 2015eko otsailean izandako gainezkatze eta euri-zaparradez geroztik.

Zioen azalpen horretan, UPNk bere egiten zuen Erriberako ureztatzaile-sindikatuak, nekazarien eta zenbait udalen iritzia, ibaien ibilguak garbitu beharri buruzkoa.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkezten ditugu:

– Nafarroako Gobernuaren ustez, Ebro ibaiaren eta haren adarren (Aragoi, Arga, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) Nafarroako Foru Komunitateko ibilguak baldintzarik egokienetan al daude, uholde kasuan beren afekzioa ezin txikiagoa izanen dela bermatzeko?

– Nafarroako Gobernuak bete al du Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia?

– Azterlana zuzenean ala Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik egin al du?

– Zein da azterlan horren emaitza?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izatera bideratutako negoziazioak zertan diren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

– Zertan dira Iruña-Noaingo aireportuak urtean zehar hegaldi gehiago izateko negoziazioak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Nafarroako Gobernuak adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitze aldera 2012tik gaurdaino egindako ekintza zehatzak, urtez urte xehakaturik.

– Adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeko ekintzen emaitzari buruzko txostenak.

– 2012tik 2016ra bitarteko II. Drogamenpekotasun-planaren balantzea, adingabeen alkohol-kontsumoa prebenitzeari dagokionez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzul ditzaten Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer ekimen abiaraziko ditu banketxeek zoru-klausulen bitartez eskuraturiko gehiegizko diru-sarrerak itzuli egin diezazkieten herritarrei?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egin zen VI. Lehendakari Konferentzia dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du iragan urtarrilaren 17an, asteartez, egin zen VI. Lehendakari Konferentziari buruz? Zehaztu konferentzian jorratutako gaiak eta mantendutako jarrerak.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

